



## **ARESOKO UDALA**

31876 (Nafarroa)

### **ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA**

Areson, 2017ko martxoaren 17an, arratsaldeko 19:00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivitek Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

**Organua :** Batzarra

**Deialdia:** lehenengoa

**Eguna:** 2017/03/17

**Ordua:** 19:00

**Lekua:** Udalaren Batzar Aretoa

#### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

M<sup>a</sup> Asunción Arratibel Onsalo  
Jon Gurrutxaga Etxeberria  
Xabier Domingo Zubillaga Uranga  
Eden Alguero Chivite  
Ur Alguero Chivite  
Javi Belaunzaran Mariezcurrena  
Mikel Baraibar Garmendia

#### **BERTARATU EZ DIRENAK**

#### **IDAZKARIA**

Ione Miren Lazkoz Maiza

#### **GAI ORDENA:**

- 1.- Aurreko aktaren onespina.
- 2.- Hirigintza Planaren Hitzarmenaren onespina.
- 3.- Administrari ofizial bat, lehiaketa-oposizio bidez eta lanaldi erdian kontratatzeko oinarrien onespina
- 4.- "Guernica" Genikara mozioa.
- 5.- Eskaera eta galderak.
- 6.- Denetarik

## **Esan-eginak eta erabakiak**

Alkateak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, arratsaldeko 19:00 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

### **1.-Aurreko batzarreko aktaren onespena.**

Aurreko batzarreko aktaren laburpena egiten du alkateak eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2017ko urtarrilaren 20ko ohiko batzarreko akta onartzea.

### **2.- Hirigintza Planaren Hitzarmenaren onespena.**

Aresoko alkateak adierazten du 2016ko urtarrilaren 20ko udal batzarrean hirigintzako udal plana garatu eta berria egiteko espediente irekiaeraren akordioa hartu zutela.

Honen baitan Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioiko Departamentua eta Aresoko Udalaren artean lankidetz hitzarmen bat sinatu beharra dago.

Hitzarmen honen barruan jarraipen batzorde bat dago eta honetan udal ordezkariak Asun Arratibel, Mikel Baraibar, Xabier Domingo Zubillaga, Eden Alguero eta Ur Alguero dira.

Eta Departamentuko ordezkariak aldiz, Rafael Araujo Guardomino eta Ainhoa Irizar Lizarazu dira.

Behin jarraipen batzordea izendatuta eta bi aldeak ados egonda, 2016ko irailaren 12an egindako udal batzarrean lankidetz hitzarmena onartua izan zen.

Lankidetz hitzarmenaren barruan, udalaren interesekoak diren helburuetan aldaketa bat eman da landa eremuan eraiki beharreko etxebizitz inguruan eta gaur onartua izatea proposatzen den hitzarmenean aldaketa hau barneratuta geratzen da.

Gia aztertuta eta hitzarmena irakurrita, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.- Aresoko Hirigintza Plana berritzeko Landa Garapen, Inguru Giro eta Toki Administrazioiko Departamentuarekin sinatu beharreko lankidetz hitzarmena onartzea.

2.2.- Ur Alguero Chivite, Aresoko Alkatea, hitzarmen hau sinatzeko ahalordetzea.

2.3.- Hirigintza Departamentuari honen berri ematea.

### **3.- Administrari ofizial bat, lehiaketa-oposizio bidez eta lanaldi erdian kontratatzeke oinarrien onspena**

Alkateak Aresoko udalaren asmoa azaltzen du.

Kontratu administratibo bidez, lanaldi erdian eta lehiaketa-oposaketa bidez administrari ofizial bat kontratatu nahi da herritarrei zerbitzu egokiago bat eman asmoz.



## ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa) Horretarako, oinarrietan jasotzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen deialdia Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez eginen da presazko egoeran oinarrituta.

Oinarriak irakurri eta aztertuta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

3.1.- Administrari ofizial bat, lehiaketa-oposizio bidez eta lanaldi erdian kontratatzeko oinarriak onartzea.

3.2.- Deialdia Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez egitea presazko egoeran oinarrituta.

3.3.- Aresko udaleko web orrian eta iragarki oholean argitratzea.

### **4.-“Guernica” Genikara mozioa.**

Alkateak jarraian atxikitzen den mozioa irakurtzen du:

#### **“GUERNICA” GERNIKARA MOZIOA**

*1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako garraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: “Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.*

*Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zapalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.*

*Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan baitzen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzerantz eramana zuena. Horren jakitun, behin baino gehiagotan aldarrikatu izan da aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoa egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.*

*Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiaketa hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Gernikara ez ekartzeko arrazoi nagusien nagusien artean.*

*Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen*

*Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernikan egon behar duela.*

*Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Aresoko Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.*

Guzti hau aintzat hartuta, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministerioari.

2.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

3.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernu eta Kultura Ministeritzari.

#### **5-Eskaera eta galderak.**

#### **6.- Denetarik.**

Aztertu beharrekoa aztertuta, 19:45 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

